

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Autonomoentzako eta banakako enpresaburuentzako laguntzak, COVID-19ren osasun krisia dela eta**

BDNS(Identif.): 503752

Iruña Okako udalbatzaren 2020ko apirilaren 22ko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita COVID-19ren osasun krisiaren egoera kudeatzeko deklaratu den alarma egoeraren ondorioz etenda geratu diren jarduerak dituzten autonomoentzat eta banakako enpresaburuentzat.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Ondoko hauek eskuratu ditzakete laguntza horiek:

1. Jarduera ekonomikoa udalerrian egiten duten enpresa txiki eta ertainak:

- Egoitza soziala eta fiskala Iruña Okako udalerrian izatea.
- 9 pertsona baino gutxiago enplegatzea.
- Enplegatutako langileak Iruña Okan errolatuta egotea.
- Iruña Okako Udaleko JEZeant alta emanda egotea (ofizioz egiaztatuko da).
- Egunean izatea Iruña Okako Udalarekiko zerga betebeharrak (ofizioz egiaztatuko da).

2. Egoitza Iruña Okan duten banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian alta emanda egotea.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotutako jarduera ekonomiko edo profesional etekinak lortzea.
- Iruña Okako udalerrian errolatuta egotea 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen.
- Iruña Okako Udaleko JEZeant alta emanda egotea (ofizioz egiaztatuko da).
- Egunean izatea Iruña Okako Udalarekiko zerga betebeharrak (ofizioz egiaztatuko da).

#### **Bigarrena. Xedea**

Oinarri hauen xedea da udalerriko enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzea, COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen errege dekretuaren ondorioz establezimenduak eta enpresak itxi bitartean diru sarrerarik ez izateari aurre egiteko.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Iruña Okako udalbatzak 2020ko apirilaren 22ko Erabakiaren bidez onartutakoak. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

241.170.000 aurrekontu partidaren kontura:

a. Alarma egoerari buruzko Errege Lege Dekretuaren bidez jarduera etenda ikusi duten autonomoek eta enpresek 250 euroko laguntza izango dute hilean, edo egoerak irauten duen egunen kopuru proportzionalari dagokion zenbatekoa. Errege Lege Dekretuaren bidez jarduera etenda ez duten eta funtsezkoa ez den jarduera dutenei hilean 125 euroko laguntza emango zaie, edo alarma egoerak irauten duen egunen kopuru proportzionalari dagokion zenbatekoa.

Nolanahi ere, onuradunari emango zaion gehieneko laguntza 1.000 euro izango da.

b. Aldi baterako enplegu erregulazioko espedientea.

1. 9 langile baino gutxiago dituzten eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedienterik izapidetu ez duten enpresek edo autonomoek 200 euroko laguntza jasoko dute langile bakoitzeko, eta konpromisoa hartu beharko dute aldi baterako enplegu erregulazioko espedienterik ez eskatzeko laguntza eman ondorengo hiru hilabeteetan.

2. 9 langile baino gutxiago dituzten eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedientea izapidetu duten enpresek edo autonomoek 150 euroko laguntza jasoko dute langile bakoitzeko. Kasu horretan, langile bakoitzeko zenbatekoa jaso ahal izango dute, baldin eta egiaztatzen bada enpresak langileekin edo ordezkariak sindikalarekin adostu duela aldi baterako enplegu erregulazioko espedientearen soldata osagarria oinarri arautzailearen ehuneko 100ekoa izango dela, eta ez soilik Estatuak jartzen duen ehuneko 70ekoa.

Bi kasuetan (1 eta 2), langileen ekarpena bakarra da, ez hilekoa.

a) eta b) letretan jasotako laguntzak bateragarriak dira, eta aldi berean eska daitezke, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen badira.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2020ko maiatzaren 31n amaituko da. Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira izapidetuko, eskaeraren edukian sartu gabe, administrazio erabakiaren bidez.

Iruña Oka, 2020ko apirilaren 22a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**